

Zabalik elkarteak larrialdi deia egin die hautetsi eta eragileei

Frantziskotarrek Donapaleuko egoitza saldu nahi dute eta irailaren 30ean etxea uzteko eskatu diete.

Aitor Renteria - DONAPALEU

Urte askotan euskal kulturaren erreferentzia edo ikurra izan ondoren, Donapaleuko (Nafarroa Beherea) frantziskotarrek etxea salduko dute eta, ondorioz, egoitzan bertan hainbat eginbide bermatzen dituen Zabalik elkarteak geroari buruzko arrangurak plazaratu ditu. Etxearen ugazaba La Toulousaine enpresak irailaren 30ean etxea uzteko eskatu die. Elkarteko kideek, ordea, orain arteko eginbideak atxiki nahi dituzte eta dei egin diete, hautetsi, botere publiko eta eragileei, laguntza eskatuz.

Zabalik elkarteak 1993an sortu zen eta lau pertsonak betetzen dituzten hiru lanpostu ditu. Orain diru faltarengatik kanporatu behar izan baditu ere, betetzen dituzten zerbitzu guztiak atxiki nahi dituzte geroan. Zabalik-ek aterpea eskaintzen die etxerik ez dutenei. 1993an 140 gualdi egin ziren bertan, 2004an 352 bermatu ditu, 600 bazkari emanez. Baionako gizarte langileek hara igortzen dituzte zailtasunak dituzten pertsonak edo tratatu txarrak pairatzen dituzten emazteak. Done Jakue bideko beilariei ere harrera egiten die: 1993an 244 beilari hartu zituzten, iaz 2.040 izan ziren. Familiak, ikasleak edo lagun taldeak ere hartzen ditu Zabalikek. Horrez gain, bilkura gelak ere kudeatzen ditu. Baina ororen gainetik, euskal kulturaren alde egin lanarengatik du fama Donapaleuko frantziskotarren etxeak. Urtero euskal kulturari buruzko konferentziak antolatzen dituzte bertan. Manex Erdozaintzi Etxarten liburutegia ere bertan da. «Liburutegi hau euskal kulturaren ondarea da eta Amikuzetik ez ateratzeko baldintzarekin eskuratu genuen», azaldu zuen atzo Margarita Mathieu Zabalik elkarteko kideak.

Zurrunbiloan harrapatuta

Frantziskotarrek 2005eko martxoaren 14an jakinarazi zioten Zabalik elkarteari etxea saltzeko xedea zeukatela. Hala ere, erosleak egoitzan eman zerbitzuak bermatu beharko zituela azpimarratu zuten.

Orduan hasi ziren elkartean dudak eta zalantzak. Zabalik elkartean frantziskotarrak eta laikoak ere biltzen dira. «Harritu egin gaitu deliberoa hartua zela jakiteak, taldeko laikoek deus ez genekielako», esan zuen atzo Ande Pessausek. Elkartea sortu zenetik delibero guztiak elkarrekin hartu izan dituzte eta frantziskotarren jokabideak ibilmolde guztiak zangopilatu dituela azaldu zuen. Krisialdiari ihardesteko Hameka taldea sortu zen apirilaren 23an. Balizko aterabideak aztertu dituzte. Oreka ekonomikoa ezin bermatuz langileak kanporatzea deliberatu dute. Ekainaren 9an La Toulouseine elkartearekin bildu ziren Okzitaniako Tolosan. Hitzarmen bat finkatu bazuten ere, abuztuaren 24an etxea uzteko eskaria jaso zuten. Irailaren 5ean Nafarroa Behereko eta Zuberoako hautetsiek egin bilkuran ez zen proposamenik sortu etxea itxi ondoren aterberik gabekoentzako zerbitzua bermatzeko. Donapaleuko Herriko Etxeak etxea erostea aztertuko du. «Auzapezak erran digu oraindik ez duela gaia aztertu eta oinarrizko baldintzak daudela, hala nola prezioa erosi ahal izatea», azaldu zuen Agostin Epherrek.

Irailaren 24ko bilkura

Azken epea heldu aitzin, Zabalikek dei egiten die norbanako, elkarte, eragile hautetsi eta botere publikoei orain arteko eginbidea bermatzeko. Irailaren 24an bilkura bat egingen dute geroari buruz aritzeko. «Informazio guztia ematea, eginbidea atxikitze borondatea berrestea eta biharko proiektu batean partaide izan daitezkeen guztiei hitza ematea izanen dira bilkuraren ardatz», zehaztu zuen atzo Mattin Hirigoienek. «Zimentu bat bada, bederen balia gaitezen gero lan bikoitza ez egiteko».

Urteetan euskal kulturaren erreferentzia izan da Donapaleuko frantziskotarren etxea eta euskaltzaleen arengura begi bistakoa da. Berantetsi gabe aterabide bat espero dute.

KONBENTUAREN HISTORIA

Erreferentzia izan da euskaldunentzat

Hego Euskal Herritik Donapaleurako bidea egin zuten Aita Aresok eta bertze hainbat frantziskotarrek 1851. urtean, gero Frantziara zabaltzeko asmoz. 1903an handik joateko agindua jaso zuten, anartean etxea eraikitzen hasi zirelarik. Herriko familia batek erosi zuen etxea eta 1922an La Toulousaine enpresari, oraingo jabeari, saldu zion. Itzultzeko modua izan zuten frantziskotarrek. Euskal kulturaren pertsonaia ezagunak izan dira han. Bizia ardatz, erlijioaren errealitatea eta gizartearena josi egin behar zirela adierazi zuen Manex Erdozaintzi Etxartek 1932an, eta bide horretan segi da. 1989an frantziskotarrek galdu egin zuten herriko kantina kudeatzeko eskubidea. Laikoekin batera gogoetak abiatu ziren eta 1993an, gogoeta horien ondorioz, Zabalik elkarte sortu zen. Jondone Jakueko beilariak, euskara ikasleak, familiak eta mila arrazoiengatik ostatuaren beharra izan duten milaka pertsona aterpetu dituzte geroztik. Liburutegian Manex Erdozaintzi Etxarten eskuizkribuak atxikitzen dituzte, euskaltzaleen altxorra. Lanak ere burutu behar izan dituzte arau berriei egokitzeko. Hamahiru urtez 319.000 euro xahutu dituzte konponketetan. Zabalik elkartearen ekimenetatik 198.000 euro lortu dituzte horretarako.